

# **BEZEROAREKIKO HARREMANAK**

Gure zerbitzuak ezagutarazteko eta bezeroak lortzeko sare sozialak, publizitatea eta promozioak erabiliko ditugu. Bezero gehiago erakartzeko publizitate moduan autobus geltokietan poster batzuk jarriko ditugu, hauen bidez etengabe gure zerbitzuen promozio berriak eskainiz, eta baita gure instagram-eko kontuan eta beste sare-sozialetan iragarkiak jarriko ditugu.


Bezeroak fidelizatzeko, era guztietako sustapenen edo nobedadeen berri izango dute gmail-eko mezuen bidez, gure aplikazioa instalatuz edo sare sozialen bidez. Astero gmail bat bidaliko zaio txakur bakoitzaren jabeari astean izandako jardueren, txakurraren datuen eta entrenamenduaren jarraipen bat eramateko. Halaber, lehen aipatu den bezala, promozioak gmail-en bidez bidaliko dira.

Bestalde, bezeroak gure zerbitzua erostera bultzatzeko helburuarekin, puntuak lortzeko sistema bat sustatuko dugu. Lehenik eta behin, bi motatako txartelak egongo dira: txartel digitalak (gure app-aren barruan puntuak gordeko dira) eta txartel fisikoak (gure zentroaren sarreran lortu ahal direnak). Hauetan, puntuak gordeko dira, eta hainbat modu egongo dira hauek lortzeko: zentroaren sarreran dauden produktuak erostea, bezeroak gure zentroan beste pertsonen txakurrak matrikulatzea lortzen duten pertsona bakoitzeko puntuak banatuko dira, autobusa erabiltzeagatik, hilabetean gutxienez 2 trebakuntza / hezkuntza klaseak hartzeagatik, hilabetero egingo den zozketan erositako boleto bakoitzagatik etab.



Era berean, gure bezeroek puntuak akumulatu heinean opariak edo zerbitzu espezialak jasoko dituzte. Puntuak gure sarreran dagoen denda txikian zerbait erostean edota lagunei gure zerbitzuak gomendatzean jasoko dira. Puntuak lehen aipatutako txartel fisiko eta digitaletan gordeko dira.

Bezeroak gure zerbitzuak kontsumiten jarraitzeko, astero gmail bat bidaliko dugu. Gmail horri esker, txakurrak aste osoan zehar eraman dituen entrenamenduak, jarduerak eta dieta erakusten ditugu. Halaber, lehen aipatu den bezala, promozioak ere gmail-en bidez bidaliko dira, gainera deskontuak ere izango dituzte puntuak akumulatu heinean. Hauek akumulatzean opariak edo zerbitzu espezialak jasoko dituzte. Gainera, hilero zozketak egongo dira gure zerbitzuak edo produktuak irabazteko.



Bezeroarekiko edukiko dugun harreman mota, laguntza pertsonala izango da, hau da, bezeroa enpresaren ordezkari batekin komunikatu daiteke zuzenean gmail bidez edo enpresako telefonoa erabiliz, gure zerbitzua erabiltzerakoan, edo gure zerbitzua erabil ondoren. Ere, haien iritziak aipaturako sareen eta gure app-aren bidez jasoko ditugu.

Bezeroek ere laguntza pertsonal eskusiboa edukiko dute, beraien txakurren portaera hezteko edo zuzentzeko edozein zalantza edo laguntzari buruz. Laguntza mota hau txakur bakoitzaren txostena eramatean datza, txakur bakoitzaren kasuan arreta gehiago jartzeko.